

AZPIKOETXEA LANDETXEAREN ERABILPEN ETA KONTRATAZIORAKO BALDINTZA OROKORRAK

Titularraren identifikazioa

- Cristina Torres Alduncin, aurrerantzean Azpikoetxea Landetxea
- C.I.F. 15984009K
- Helbidea: C/ Santa Cruz 9
- Landetxeen erregistroan izena emanda,, ucr00807 zenbakiarekin
- Telefono zenbakia: 607524980
- Email: info@casaruraletxarri.com

Azpikoetxea Donostia eta Iruñea artean kokaturiko baserria da, 1700. urtean eraikitako baserri xarmangarri eta paregabea. Gure landetxea bere osotasunean dago alokagai eta 10-12 lagunentzako edukiera dauka. 300 metro karratuko azalera du eta 5 logelatan dago antolatua, logela bakoitzak bere bainugela duela eta hauetako bat elbarrientzako prestatua dagoelarik. Honetaz gain sukalde eta tximinia duen egongela dago, baita terraza eta jardina mahaiarekin eta barbakoarekin.

EGONALDIAREN IRAUPENA

Behe denboraldian gutxieneko egonaldia bi egunetakoa da eta goi denboraldian, aste betekoa.

SARRERA

Ez daukagu ez sartzeko ezta ateratzeko ordutegirik, baina beste talde batek etxea erabili behar badu, eguerdiko 12ak baino lehenago etxeak hutsik egon beharko du. Oso malguak gara eta zuen beharretara egokitzen saiatzen gara, erreserba egutegiak uzten duen heinean.

ERRESERBAK ETA ORDAINKETA

Erreserbak, internet, telefono edo posta bidez egin daitezke. Erreserba burututzat emango da idatziz konfirmatzen denean, posta elektronikoz. Erreserba egin ahal izateko %30eko gutxieneko sarrera egin beharko da. Gainontzekoa giltzak ematen direnean kobratuko da.

KITATZEAK

Gure kitatze politika hau da: iriste data baino 30 egun lehenago arte erreserba kitatzen bada, diru sarreraren %100 bueltatuko dizugu. Kitatzea 30-15 egun baino lehenago eginez gero, % 50 bueltatuko zaizu eta 15 egun baino gutxiago falta direnean egiten baduzu, ezingo dizugu diru itzultzerik egin.

ZER AURKITUKO DUZU AZPIKOETXEAN?

4 izarretako maila duen landetxea

Egokitutako ostaldea. Behe solairuan egokitutako komuna duen gela dago, eta arkitektura aldetik trabarik gabeko gune amankomunak daude.

Dog-friendly gara eta zure maskota zurekin ekar dezakezu besteak bezala etxeaz gozatu dadin. Erreserba egiteko garaian maskota ekarriko dezula jakin araziguzu, besterik ez.

Gela guztietan wifi sarbidea dago

Etxe eroso oraindik aurkitzeke duen ingurunearekin.

ZERBITZUAK ETA BALDINTZAK

Etxea garbia ematen da, oheko eta komuneko arroparekin, baita sukaldeko tresneriarekin ere. Prezioaren barruan garbiketarako produktuak daude, baita sutarako egurra ere. Ekipamendua zaindu dezazuela espero dugu. Bestalde, etxea ez dago musika altua jartzeko festak hartzeko moduan, ezkondu aurreko afariak

bezala, hauek herriko beste bizilagunak molestatu baititzakete. Hortaz, guztiz debekatuak daude. Halaber, etxe barruan ezin da erre. Azpikoetxea ez da egonaldian eman daitezkeen zuzeneko edo zeharkako kalteren erantzule izango, suak eragindako lesioak edota beste kalte pertsonalak barne; ezta lapurreta edo jokaera kriminalaren ondorioz emandakoak. Era berean, ez da eman daitezken edozein horniketa arazotaz arduradun izango, hauek, energia, ura internet edo TB sarbideari dagokizkionean.

Ahal dugun neurrian zuen egonaldia bikaina izaten saiatuko gara eta zuen esanetara gaude zonak eta inguruneak eskeintzen dituen aktibitateei buruz berri emateko. Zuen iritsieraren zain gaude eta egonaldiaren ondoren zuen eritzia jakitea benetan gustatuko litzaziguke.

BEZEROAREN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUNKIZUN LEGALA.

Kontratatuak zerbitzuen ordainketa, erreklamazio edo kexa baten aurkezpenak betebeharrak hori salbuesten ez duelarik.

- Check-in prozesua bitartean etxean ostatu hartuko duten pertsona guztien nortasuna egiaztatu behar dugu, bai N.A. ren bidez bai pasaportearen bidez.
- Erreserba egin duenak agiri bat sinatu beharko du, non datak, prezioa eta erreserbaren baldintzak jasotzen baitiren. Pertsona hau etxearen eta bertako tresnen erantzule izango da egonaldi bitartean.
- Bezeroak arau hauek bete behar ditu. Hauetako arauen bat bete ezean, jabeak, apopiloak eta hauen laguntzaileak etxetik bota ahal izango ditu, bezeroak edozein ordain galduz.
- Egonaldi bitartean ezinbestekoa da 18 urtetik gorako pertsona heldu bat egotea.
- Azpikoetxea etxeak dituen baldintzak bete behar dira, hau Baldintza Orokorren zati bat delarik.
- Besteekiko garbiketa, edukazio eta ohitura egokiak mantendu behar dira, bai etxeako altzarietarako, langileetarako eta instalazioetarako.
- Eraikuntzan kalteak eragiten dituenak, hala altzairu nola inbentarioan, legearen aurrean erantzule izango da, indarrean dauden legeen arabera. Nahitaz egindako kalteak eta lapurretak berehala salatuko dira. Sarrera momentuan kreditu txartela zenbaki bat eskatuko da, non 300€ko gehiegizko kantitatea kobratu ahal izango baita, balizko kalteak konpentsatzeko.

ERREKLAMAZIO ORRIAK

Azpikoetxea Landetxeak erreklamazio orriak eskuragarri ditu bezeroentzat. Indarrean dagoen arautegiaren arabera, erreklamazioak bakarrik ordainketaren ondoren aurkeztu daitezke.

JURISDIKZIOA ETA BALIOZKO LEGEA

Sinatzaileak, borondatez daude Etxarri Larraungo Jurisdikzio eta epaitegien eraginpean kontratu honen interpretazio eta ezarpenetatik eratorritako gatazkak erabakitze garaian.

PRIBATUTASUN POLITIKA ETA DATUEN BABESA

Azpikoetxea landetxeak, LOPD- ren arautegia eta garapenarekin konplizten du. Zure eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, idatzi honen goikaldean dagoen helbidearen arduradunari idatzia bidaliz, zure N.A ren kopiarekin batera. Erreserben inprimakia betetzeko garaian, titularrak Azpikoetxea landetxeari baimena ematen dio, emandako datu pertsonalak erabiltzeko, eskatutako erreserba aurrera eramateko, kontabilitate, fiskal eta administrazio gestiorako, erlazioaren mantentzeko eta beste zerbitzuen eskeintzarako, edozein euskarri bitartez, elektronikoki barne.